TOKIKO ENPRESEK LANGILEAK MUGAGABEKO KONTRATUEN BIDEZ KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK ETA EUSKO JAURLARITZAREN EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILAK KOFINANTZATUTAKO DONOSTIAKO ENPLEGU ETA TOKI GARAPENEKO 2026-2030 PLANAREN ESPARRUAN ETA BEREZIKI ZENBAIT KOLEKTIBOTAKO PERTSONEN ARTEAN KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATZEKOA

AURREKOAK

Donostiako Udalak, Donostia Sustapenaren bitartez, bere enplegua sustatzeko eta tokiko ekonomia garatzeko politika garatzen du Enplegu eta Toki Garapeneko 2026-2030 Planaren bidez. Plan hori udalaren jarduna hiri berritzaile, lehiakor eta sozialki kohesionatu baten eredurantz jotzeko tresna estrategiko bat da, Lanbidek –Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak– eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak batera finantzatua. 15/2023 Legearen, hau da, Enpleguaren Euskal Legearen esparrutik dator, eta Enpleguaren 2030 Euskal Estrategiaren jarraibideei segitzen die, lanaren eta garapen ekonomikoaren alorrean udaleko eta autonomia erkidegoko politikak koordinatzeko.

Enplegu eta Toki Garapeneko 2026-2030 Planak zenbait lerro estrategiko ezartzen ditu herritarren enplegagarritasuna hobetzeko, enpresa-sarea indartzeko eta ekoizpen-eredu jasangarri, digital eta ezagutzan oinarrituago batera jotzeko trantsizioa sustatzeko. Haren ardatz nagusien artean azpimarratzekoak dira langileen aktibazioa eta birkualifikazioa, gazteen eta seniorren talentua bultzatzea, enpresa-berrikuntzari aguntzea, balio erantsi handiko sektore estrategikoak sustatzea eta kalitatezko enplegua sortzea eta mantentzea errazten duen tokiko ekosistema finkatzea.

Hori horrela, Donostia Sustapenak hainbat programa eta baliabide abiaraziz lanerako orientazioa, prestakuntza espezializatua, enpresentzako bidelaguntza eta kontratazio-aukeren sustapena uztartzen ditu.

Kontrataziorako laguntza-lerro hau jarduketa horietako bat da, eta haren helburua Donostiako enpresa eta entitateetan langabeak lanerako hartzea da, hiriaren dinamizazio ekonomikoa bultzatzeko eta haren lan-merkatua indartzeko.

Asmoa da laguntza hauek erabilgarriak izatea enplegua lortzeko oztopoak gutxitzeko; lanpostu egonkorrak sortzen laguntzeko; eta hazteko, eraldatzeko eta finkatzeko prozesuetan enpresen bidelagun izateko. Halaber, bat datoz Lanbidek- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak lan-arloa aktibatzeko, enpleguaren kalitatea hobetzeko, aukera-berdintasuna lortzeko eta sektore estrategikoetan eta gorabidean daudenetan kontratazioa sustatzeko ezarritako helburuekin.

Horrenbestez, ulertzen da laguntza-lerro hau autonomia erkidegoan zein udalerrian garatzen diren enplegu-politika aktiboen osagarri bat dela, enpresek kalitatezko enplegua bultzatzeko

duten gaitasuna indartzen duela, eta langabeak lan-munduan txertatzea errazten duela, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzat. Hala, hiri inklusibo, lehiakor eta herritarren ongizatera emanago baten eredurantz hurbiltzen laguntzen dute.

Deialdi hau Donostiako Enplegu eta Toki Garapeneko 2026-2030 Planaren barruan egin da, eta Lanbidek- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak batera finantzatu dute.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza hauen xedea Donostian enplegu mugagabe, egonkor eta kalitatezkoa sor dadila bultzatzea da.

Haien bitartez udalerriko enpresek Lanbiden- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan ALTA BITARTEKARITZAREKIN hartuta duten enplegu-eskatzaileekin egindako kontratazio mugagabeak lagundu ahalko dira diruz.

Laguntzok soldata-hobekuntzak, laneko kontziliazioa, lanpostuari lotutako prestakuntza, bidelaguntza profesionala, lan-munduan txertatzeko jardunbide egokiak edo aukera-berdintasuna dakarten kontratazioak lehenetsiko dituzte.

Oinarri hauen ondoreetarako, kalitatezko enplegutzat joko da kontratuaren egonkortasuna, soldata-baldintza duinak, lan-ingurune osasungarria, lanpostuari lotutako prestakuntza, aukera-berdintasuna, kontziliazioa eta garapen profesionala bermatzen duena. Gainera, bultzada berezia emango zaio emakumeak eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzeari:

- DSBE/BGDSren hartzaile titularrak edo onuradunak
- 35 urtetik beherakoak
- Luzaroko langabeak: Luzaroko langabetzat jotzen dira kontratazioaren aurreko 540 egunetan Lanbiden- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile moduan inskribatuta egon direnak, «alta bitartekaritzarekin» egoeran, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egunez langabezian egon badira.
- 55 urtetik gorakoak

Horretarako, zenbateko ezberdineko laguntzak eskaintzen dira oinarri hauetako 4. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten jarduera ekonomikoaren sektoreentzat.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak BERREHUN ETA HOGEITA BOST MILA EURO (225.000 €) bideratuko ditu oinarri hauetan araututako laguntzetarako, Lanbidek- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak batera finantzatutako Donostiako Enplegu eta Toki Garapeneko 2026-2030 Planaren dirulaguntzatik.

Donostia Sustapenak zenbateko hori aldatzeko eskubidea du, hala behar izanez gero.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Onuraduna izango da laguntza ematearen oinarri zen jarduera egin behar duen pertsona, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoera batean dagoena, baldin eta betetzen baditu oinarri hauetan jasotako betekizunak eta, bereziki, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Laguntzen onuradunak izan daitezke pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak eta pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita aurrekoek osatutako nortasunik gabeko elkarteak ere, antolamendu juridikoaren arabera baliozko moduan eratutakoak, oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Kanpo daude ondare-sozietateak, 2/2014 Foru Arauaren, urtarrilaren 17koaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 14. artikuluan definitutakoak.

Oinarri hauetan laguntzak eskatzeko betekizunak eta horiek frogatzeko era zehaztuko dira. Nolanahi ere, pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileek onuradun izateko 20/2023 Legearen, abenduaren 21ekoaren, Dirulaguntzen Araubideari buruzkoaren, 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Ezingo dira onuradun izan 20/2023 Legearen 13. artikulu horretan aurreikusitako inguruabarren batean dauden pertsona fisikoak edo juridikoak, honako hauek, bereziki:

- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera kentzeko zehapena jaso dutenak edo horretarako desgaitzen dituen legezko beste edozein debeku jaso dutenak. Horrez gain, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen arauditik datozen debekuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak ere ezingo dira onuradunak izan, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duenaren, 23.2. artikuluan ezarritako debekuak dituztenak barne. Horiez gain, ezingo dira

onuradunak izan estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra izan eta indarrean ez dutenak, ezta sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta indarkeria sexualak prebenitzeko eta haren kontra egiteko neurriak ezarri behar izan arren betetzen dituztenik frogatzen ez dutenak ere.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak dituztenak.
- Lehendik emandako dirulaguntza edo laguntza publikoren bat osorik edo partez itzultzeko daukatenak, erreklamatutako zenbatekoak ordaindu dituztela frogatu edo itzultzeko prozedurako betebeharrak egunean eduki artean.

39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 28.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak eta beste edozein administraziok egindakoak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahalko ditu, salbu eta interesdunak aurka egiten badu; eta, orduan, ziurtagiriak berak aurkeztu beharko ditu.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez zuzenean eskatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau, prozedura hau ebazteko eta hartako ordainketak egiteko:

- Donostiako Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Onuradunaren eta sustatzaileen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) historia.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko unean eta ordainketak jasotzekoan Udal Bilketako eta Foru Ogasuneko eta/edo Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izan ezean, onuradunak egunean jarri direla egiaztatu beharko du, jakinarazi eta HAMAR (10) egun balioduneko epean.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Onuraduntzat joko dira irabazi asmoko jarduera ekonomiko bat egiten duten duten pertsona fisikoak edo pertsona juridikoak, edo aurrekoek osatutako nortasunik gabeko taldeek, baldin eta antolamendu juridikoaren arabera baliozko moduan eratu badira eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a. Laguntzaren xede den jardueraren zerga-egoitza eta/edo lantokia Donostian kokatuta egotea.

b. Pertsona fisiko edo juridikoak badira, eskaera egiteko unean enpresa txiki izaera izatea. Enpresa txikitzat joko dira horretarako 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 13. artikuluan jasotako arauketako betekizunak betetzen dituztenak:.

I. Ustiapen ekonomiko bat egitea.

II. Bere aktiboa eta eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Itun Ekonomikoan definitutako moduan, ez izatea HAMAR (10) milioi eurotik gorakoa.

III. Plantilla ez izatea, batez beste, 50 pertsonatik gorakoa.

IV. Zuzenean edo zeharka ez izatea aurretik aipatutako betekizunen bat betetzen ez duten enpresen % 25eko edo gehiagoko partaidetzarik, salbu eta arrisku-kapitaleko sozietate edo funts bat bada, aipatutako foru-arauaren IV. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikagarri zaiona.

Entitatea Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren arabera sozietate-talde baten parte denean, aipatutako lan-taldearen tamaina talde horretako entitate guztienen batura izango da.

Honako hauek ezingo dira onuradunak izan:

- % 25ean baino gehiagoan sektore publikoko entitateen mendean edo haiek partaidetuta dauden entitateak (sektore publikokotzat joko dira hemen jasotako entitateak: 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 24koak, Espainiako antolamendu juridikora dakartzanaren, 3. artikuluan), ezta hein berean irabazi asmorik gabeko entitateen, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen mendean edo haiek partaidetuta dauden entitateak ere.
- Aldi baterako laneko enpresak.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Laguntzen xedea kontratazio mugagabeak sustatzea da, lantokia Donostian duten enpresetan kalitatezko enplegua hobetzeko.

8.400 eurorainoko laguntza ezarri da lanaldi osoko mugagabeko kontratazio bakoitzerako: oinarrizko zenbatekoa, batetik, eta sortutako enpleguaren kalitateari lotutako gehigarriak, bestetik.

Kontratazioa lanaldi partzialekoa bada, betiere % 50 edo gehiagokoa bada, laguntzaren zenbatekoa lanaldiaren ehunekoaren arabera hainbanatuko da.

Balorazioaren xede izatea nahi diren gehikuntzak berariaz adierazi beharko dira eskaera-eranskinean. Berariazko identifikaziorik ezean, gehikuntza horiek laguntzaren zenbatekoa zehazterakoan kontuan ez hartzea gerta daiteke.

Laguntzaren zenbatekoa honako irizpide hauen arabera kalkulatuko da:

1. OINARRIZKO LAGUNTZA

Oinarrizko laguntza 3.500 eurokoa izango da soldata-tarteak jasotzen dituen taulako 1. tarteko urteko soldata gordina duen lanaldi osoko kontratazio mugagabe bakoitzeko.

2. KALITATEZKO ENPLEGUAGATIKO GEHIGARRIAK

Oinarrizko laguntzaz gain, enpresek gehigarriak ere eskuratu ahal izango dituzte lan-baldintzak benetan hobetzen badira.

2.1. GEHIGARRIA – Soldata-hobekuntza

Bereziki bultzatuko dira oinarri hauetan ezarritako gutxieneko soldatak baino ordainsari handiagoak dituzten kontratazioak.

Horretarako, honako gutxi gorabeherako multzo hauek ezarri dira:

- **A taldea – Oinarrizko lanpostuak**: laguntzaileak, saltzaileak, laguntzarako langileak eta abar.
- **B taldea – Bitarteko lanpostuak**: ofizialak, administrariak, enkargatuak, langile kualifikatuak eta abar.
- **C taldea – Ardura-postuak**: burutzak, arduradunak, zuzendariak eta abar.

Bereziki bultzatuko dira talde profesional bakoitzerako ezarritako gutxieneko soldatak baino handiagoak dituzten kontratazioak.

Dirulaguntzari honako zenbateko hauek gehitu ahalko zaizkio:

- **1.000 euro** urteko soldata gordina *2. tartea*n badago.
- **2.000 euro** urteko soldata gordina *3. tartea*n badago.

*Soldata hobetzea*gatiko gehigarriak aplikatzeko soldata-tarteen honako taula hau hartuko da kontuan:

Taldea	1 Tartea (€)	2 Tartea (€)	3 Tartea (€)
A- Oinarrizko lanpostuak	<21.500	21.500-23.500	>23.500
B- Bitarteko lanpostuak	<25.000	25.000-28.000	>28.000
C- Ardura-postuak:	<32.000	32.000-35.000	>35.000

Talde profesionala lan-kontratuan jasotako kategoria profesionalaren arabera zehaztuko da.

2.2. GEHIGARRIA – Harrerako eta bidelaguntza profesionaleko plana

600 euroko gehigarria emango da enpresak harrera-plan egituratu bat aurkezten eta aplikatzen badu kontratatutakoa errazago batzeko, enpleguaren kalitatea hobetzeko eta langilearen integrazioa, ongizatea, laneko garapena eta egonkortasuna errazteko.

Planak honako apartatu eta eduki hauek izan beharko ditu, gutxienez:

Enpresaren informazioa	Enpresaren oinarrizko deskribapena, antolakuntzako egitura eta funtzionamendu-arauak, berdintasuneko, laneko arriskuen prebentzioko eta konfidentzialtasuneko oinarrizko printzipioak barne.
Lanpostuaren deskribapena	Diruz lagundutako postuaren deskribapen argia: funtzioak, ardurak, helburuak eta antolakundean duen lekua.
Hasierako bidelaguntza	Tutore bat edo erreferentziazko langile bat izendatzea egokitzapen-aldian jarraipena egin diezaion, eta haren laguntzeko eta integraziorako funtzioak definitzea lehen 6 hilabeteetarako, gutxienez.
Egokitzapeneko bidelaguntza	Egokitzapenaren jarraipena hasierako aldian.

2.3. GEHIGARRIA – Lanpostuari lotutako prestakuntza

300 euroko gehigarri bat emango da enpresak kontratazioaren lehen urtean 10 orduko prestakuntza bermatzen badu, gutxienez.

Prestakuntzak lanpostuari lotuta egon beharko du, eta hartarako gaitasun teknikoei, digitalizazioari, jasangarritasunari, arriskuen prebentzioari, bezeroen arretari, hizkuntzei, gaitasun profesionalei edo lanpostuari zuzenean lotutakoei buruzkoa izan ahalko du.

2.4. GEHIGARRIA – Kontziliazioa eta lanaren malgutasuna

600 euroko gehigarria emango da enpresak dirulaguntza honen xede den kontratazioari kontziliaziorako eta lanaren malgutasunerako neurri eraginkorrak aplikatzen badizkio, esaterako, ordutegi malguak, lanaldi egokitua, telelana, lan-denboraren banaketa malgua, ordu-poltsak edo kotziliaziorako eta lanaren malgutasunerako neurri baliokideak, kontratatutakoari behar bezala aplikatutakoak.

3. INKLUSIO ETA KOHESIO SOZIALAGATIKO GEHIGARRIAK

Enplegua lortzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboek aukera berdinak eduki ditzaten eta haiek lan-munduan txertatzea errazteko, honako gehigarri hauek aplikatu ahalko dira:

- **Emakumeak kontratatzeagatiko gehigarria**

Guztizko zenbatekoa **% 10** handitu ahalko da kontratatutakoa emakumezkoa bada.

- **Kolektibo lehenetsiak kontratatzeagatiko gehigarria**

Guztizko zenbatekoa **% 10** handitu ahalko da kontratatutakoa honako kolektibo hauetakoren bateko parte bada:

- **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) edo bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren titularrak edo onuradunak.**
- Kontratua formalizatzean **35 urte baino gutxiago dituztenak.**
- **Luzaroko langabeak**, hau da, **kontratazioaren aurreko 540 egunetan** Lanbiden- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile moduan inskribatuta egon direnak, baldin eta aldi horretan **gutxienez 360 egunez** langabezian egon badira.
- Kontratua formalizatzean **55 urte baino gehiago dituztenak.**

Gehigarrien bateragarritasuna: Posible izango da bi gehigarriak **metatzea,** eta dirulaguntzak, **guztira**, oinarria baino **% 20 handiagoa izan ahalko du**, baina kontratatutakoa emakumea eta zerrendatutako kolektiboren baten parte denean bakarrik.

Diruz lagundutako kontratazio bakoitzeko laguntza, guztira, ezingo da 8.400 euro baino handiagoa izan, oinarrizko dirulaguntza eta oinarri hauetan lanaldi osorako kontratazioetarako aurreikusitako gehigarri guztiak barne.

GEHIENEKO LAGUNTZAREN **adibidea**:

- **Administrari-postua, 28 urteko emakumea, lanaldi osoan eta urtean 29.100 euroko soldata gordina:**

(8.400 euroko GEHIENEKO LAGUNTZAREN adibidea: Administrari-postua, 28 urteko emakumea, lanaldi osoan eta urtean 29.100 euroko soldata gordina:		
	Soldata-tarteen taula	**Zenbatekoa**
mugagabea, % 100	% 100eko kontratuaren oinarrizko laguntza	3.500 €
	Soldata-hobekuntza (3. tartea)	2.000 €
	Soldata-tarteei lotutako gehigarriak, guztira	**5.500 €**
	Kalitate-hobekuntza	
	Harrera-plana	600 €
	Lanpostuari lotutako prestakuntza	300 €
	Kontziliazioa eta lanaren malgutasuna	600 €
	Kalitateari lotutako gehigarriak, guztira	**1.500 €**
	Kolektiboen gehigarriak	
	Emakumezkoa (+% 10)	700 €
	Kolektiboa (+% 10)	700 €
	Kolektiboei lotutako gehigarriak, guztira	**1.400 €**
	Guztira	**8.400 €**

6. ARTIKULUA. LAGUNDUTAKO KONTRATAZIOEN BETEKIZUNAK

Lan-kontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gutxienez:

a) **Kontratatutakoek lanik ez izatea eta Lanbiden-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile modura inskribatuta egotea, ALTA BITARTEKARITZAREKIN egoeran.** Inskripzio-data lan-harremana hasi aurrekoa izango da. Langabetuek ezingo dute Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean langile modura alta emanda egon, ezta langile autonomoen araubidean ere, lan-harremana hasi eta aurreko egunetik, behintzat. Lanbiden- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan «zerbitzu-eskatzaile» modura edo BITARTEKARITZARIK GABEKO ALTA egoeran inskribatuta daudenek baldintza hori betetzen ez dutela ulertuko da.

b) Kontratazioak **2026ko urtarrilaren 2aren eta 2026ko abenduaren 31ren artean** egitea.

c) Kontratatu beharrekoak Donostian erroldatuta egotea lan-harremana hasi aurreko egunetik, gutxienez. Lan-harremana hasi eta aurreko egunetik gutxienez erroldatuta

zeudela frogatzen dutenak bakarrik izango dira baliozkoak. Erroldako bizitokiak edozein izan ahalko du, non eta ez den 2/2014 Foru Arauaren, urtarrilaren 17koaren, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 42. artikuluan jasotakoaren arabera entitate kontratugilearekin (onuraduna) edo artikulu berean ezarritakoaren arabera harekin lotutako beste edozein entitaterekin loturarik duen pertsona fisiko batena. Halaber, kontratatutakoak baldintza hau betetzeko, ez da onartuko Donostian aurretik erroldatuta egon izana, edozein arrazoirengatik eten bazen.

d) Lanpostua enpresaren jarduerarekin zuzenean lotuta egotea.

e) Eskabidean urteko soldata gordina jasota egotea.

f) Diruz lagundutako kontratazioaren xede denaren lantokia Donostiako udal-mugartean kokatuta egotea.

g) **Lan-kontratu mugagabea dirulaguntzaren epe osoan indarrean egotea. 12 hileko aldia izango da.**

h) **Kontratazio hauek enplegu-sorrera garbia ekarriko dute** diruz lagunduta kontratatu duen langilea batu aurreko SEI (6) HILABETEETAN enpresak izan duen batez besteko lan-taldearekin alderatuta.

Kalkulu hori egiteko, dirulaguntza-eskaeraren xede den kontratazioaren egunean altan dauden langileen taldeak handiagoa izan beharko du kontratazioaren egunaren aurreko SEI (6) HILABETEETAN altan egon diren langileen batez besteko taldea baino. Hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak egindako «altan dauden langileen batez besteko lantaldearen txostenak» aurkeztu beharko dira; bat kontratuaren egunaren aurreko SEI (6) HILABETEEI dagokiena, eta beste bat dirulaguntza-eskaeraren xede den kontratazioaren egun berekoa.

Adibidez: Honako txosten hauek beharko lirateke 2025eko ekainaren 15ean egindako kontratu batean lantaldearen areagotze garbia egiaztatzeko:

1. *2024ko abenduaren 15etik 2025eko ekainaren 14ra bitartean altan egon diren langileen batez besteko taldearen txostena.*
2. *2025eko ekainaren 15etik 2025eko ekainaren 15era bitartean altan egon diren langileen batez besteko taldearen txostena.*

i) Kolektiboen parte diren langabetuak kontratatuz gero, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) edo bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren titularrak edo onuradunak izatea.

- Kontratua formalizatzean 35 urte baino gutxiago izatea.

- Luzaroko langabeak izatea: Luzaroko langabetzat jotzen dira kontratazioaren aurreko 540 egunetan Lanbiden- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile langabetu moduan inskribatuta egon direnak, «alta bitartekaritzarekin» egoeran, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egunez langabezian egon badira.

- Kontratua formalizatzean 55 urte baino gehiago izatea.

Honako kontratazio-mota hauek ezingo dira diruz lagundu:

- % 50etik beherako lanaldietarako egindako kontratazioak.
- Lanaldia aldatu zaien kontratuak, hasieran kontratatutako lanaldia handitzen ez bada, behintzat.
- 2/2014 Foru Arauaren, urtarrilaren 17koaren, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 42. artikuluan xedatutakoaren arabera onuradunarekin lotuta dauden pertsona fisikoen kontratazioak.
- Onuradunaren ezkontideak; izatezko bikotekideak (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteetan); odolkidetasuneko, ezkontza-ahaidetasuneko, izatezko bikotea eratzeak edo adopzioak dakarren harremaneko bigarren mailara arteko aurreko, ondorengo edo zehar-ahaideak; edo 2/2014 Foru Arauaren, urtarrilaren 17koaren, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 42. artikuluko 3. apartatuaren arabera onuradunarekin lotutakotzat jotzen diren pertsonenak.
- Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdi honetan edo aurrekoetan enpresa berean kontratatzeko laguntzaren bat jaso duen pertsona baten lan-kontratazioa.
- Enpresa berean edo 2014ko urtarrilaren 18ko 2/2014 Foru Arauaren, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera enpresa eskatzailearekin lotuta dagoen eta ondare-sozietatetzat jotzen ez den beste entitateren batean kontratazioaren dataren aurreko 12 hilabeteetan kontratu mugagabe baten bitartez zerbitzuak eman zituztenekin egindako kontratuak.
- Ez da onartuko aldizkako kontratu finkorik, ezta aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzerik ere.
- Lanbiden-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan zerbitzu-eskatzaile modura edo BITARTEKARITZARIK GABEKO ALTAN inskribatutako langabetuen kontratazioak.

Onuradun bakoitzak laguntza bakarra jaso ahalko du.

Donostia Sustapenak eskubidea du zerrendatutako betekizunetako edozein betetzen dela egiaztatzeko edozein dokumentazio edo informazio eskatzeko.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu berberarekin aldi bererako emandako beste edozein laguntzarekin, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatuk emandakoekin.

Laguntza horien azken hartzaile orori laguntza emateko, hala jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoei (autonomoak) nola pertsona juridikoei, Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan, 2023ko abenduaren 13koan, EBren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoan ezarritako betekizunak eta mugak aplikatuko dira.

Azken hartzaileetako bakoitzari eman dakiokeen de minimis laguntzen zenbatekoa, guztira, ezingo da 300 000 € baino handiagoa izan hiru zergaldiko edozein alditan. Horretarako, araubide horrek ukitutakoek jasotako laguntzen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, dirulaguntza ematen den unetik zenbatu eta hiru zergalditan, abian den zergaldian eta aurreko bietan dagokien zenbateko-muga betetzeari buruzkoa.

Dirulaguntza emateko ebazpenean onuradunari dirulaguntza gordinaren zenbateko baliokidea zenbatekoa den jakinaraziko zaio, de minimis mugaren ondoreetarako.

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa inola ere ezingo da izan berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzeko modukoa.

8. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHARREKO ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea **oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta laguntza honetarako baliabide ekonomikoak ahitzean amaituko da** (agortuz gero, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) **edo, bestela, deialdia itxitakoan, hau da, 2027ko urtarrilaren 31n**.

Eskaera-epea amaitutakoan soberakinak badaude edo zuzkidura ekonomikoa handitzen bada, eta Donostia Sustapenak hala nahi badu, eskaera epea zabaldu ahal izango da. Hala erabakiz gero, dagokion moduan jakinaraziko da.

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatu. Sinadura behar duten aurkeztu beharreko dokumentuetarako sinadura digitala erabili beharko da.

Edozein informazio edo kontsulta baduzu, deitu 943482800 telefonora, edo idatzi helbide elektronikora(fomentoss@donostia.eus), gaian hau jarrita: «2026 ETKP KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK»

Jendearentzako arretaren ordutegia Donostia Sustapenaren webgunean azaltzen da.

Laguntzak eskatzeko interesa duten enpresek edo erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Dokumentazio administratiboa:

a) **Eskaera-eranskina.** Eskatutako gehikuntzak berariaz adierazita.
b) Laguntza eskatu duen pertsona edo entitatearen **bankuko datuen eranskina**, dagokion banku entitateak zigilatua, edo bankuko dokumentu baliokide bat.
c) Pertsona fisikoa izanez gero, **eskatzailearen NANa**ren kopia.
d) Pertsona juridikoa izanez gero, **eskatzailearen IFZ**ren kopia, eta, hala badagokio, ahaldunaren NANa.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez da onartuko mezu elektronikoz aurkeztutako agiririk. Halaber, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira.

Onuraduna egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako dokumentazio guztiaren egiazkotasunaren erantzule da.

Interesdunek aurretik Donostia Sustapenaren laguntza-deialdiren batean parte hartzeko dokumentu horietakoren bat aurkeztu badute, ez dute berriz aurkeztu beharko, indarrean badago eta datuak aldatu ez bada.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzean udal bilketako eta Foru Ogasuneko eta/edo Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ez dituzten entitateek egunean utzi dituztela egiaztatu beharko dute, eta, horretarako, Donostia Sustapenak zuzenketa-eskaera bat bidaliko du.

ALDEKO EBAZPENAREN ONDOREN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ALDIA.

Aldeko ebazpena jaso duten eskaerek honako epe hauek izango dituzte jarraian adierazitako dokumentazioa aurkezteko:

1.- Laguntzaren ebazpenaren egunaren aurretik egindako kontratazioentzat, eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea, gehienez, hilabetekoa izango da.

2.- Laguntzaren ebazpenaren egunaren ondoren egindako kontratazioentzat, eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea, gehienez, hilabetekoa izango da kontratazioaren datatik aurrera; eta kontratazio berria egitekoa, aldiz, bi hilabetekoa.

Kontratazioaren dokumentazioa:

- **«Kontratazioaren datuak»** eranskina.

- **Lan-kontratuaren** kopia (orrialde guztiak), bi aldeek sinatuta. Honako baldintza hauek bete direla frogatu beharko da: iraupena, **lanaldia, lantokia, bete beharreko lanpostua**, ordainduko den **urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan)**, eta kategoria profesionala.
- Lan-**kontratuaren komunikazioa**.
- Kontratatutakoaren NAN/AIZaren kopia.
- «**Inskripzio-aldien txostena**», Lanbidek-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egina («Bitartekaritzarekiko alta» egoeran inskribatuta dagoela egiaztatzeko. Dokumentuak kontratazioa hasi ondoren igorritakoa izan beharko du.
- «**Afiliatu baten lan-bizitzaren txostena**», enpresan kontratatutakoarena, kontratua hasi aurreko 6 hilabeteetakoa, gutxienez.
- Kontratuaren xede den pertsonaren **errolda-ziurtagiria**, Donostiako Udalak kontratazio-egunaren ostean egina, edo kontratatutako pertsonak Donostia Sustapenari kontsultatzeko agiri hori bere kabuz kontsultatzeko emandako baimena (**«Kontratazioaren datuak»** eranskinean jasota dago).
- Altan egon diren langileen **batez besteko taldearen txostena**, Gizarte Segurantzak egina, **kontratazioaren egunaren aurreko sei hilabeteetakoa**.
- Altan egon diren langileen **batez besteko taldearen txostena**, Gizarte Segurantzak egina, **kontratazioaren egunekoa**.
- DSBE/BGDSren (diru-sarrerak bermatzeko errenta/bizitzeko gutxieneko diru-sarrera) hartzaile titularrak edo onuradunak kontratatuz gero, **Lanbide**k- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egindako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, **hori frogatzeko**.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako agiririk. Halaber, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira.

Dirulaguntza eskatzeko unean eta ordainketak jasotzekoan udal bilketako eta Foru Ogasuneko eta/edo Gizarte Segurantzako bete beharrak egunean izan ezean, egunean jarri direla egiaztatu beharko da.

Onuraduna egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako dokumentazio guztiaren egiazkotasunaren erantzule da.

9. ARTIKULUA. ESKAEREN AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia berrikustean egiaztatzen bada ez dela behar bezala bete edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo falta diren dokumentuak aurkezteko eskatuko zaio. Gainera, adieraziko zaio hori egin ezean inongo beste izapiderik gabe eskaera-prozesutik kanpo utziko dela eta horretarako dagokion ebazpena emango dela. Donostia Sustapena.

Zuzenketa-eskaerak onuradunak harremanetarako helbide gisa emandako helbide elektronikoaren bitartez jakinaraziko dira (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

Zuzenketarako eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabilitako bide beretik aurkeztuko da. Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik.

Laguntzak Donostia Sustapenak berariaz emandako ebazpenen bitartez emango edo ukatuko dira, eta jakinarazpenak posta elektronikoz egingo dira. Jakinarazpenak web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN TRAMITAZIOA ETA EBAZPENA

Eskaerak erregistroan sartzen diren hurrenkeran ebaluatu eta ebatziko dira, oinarri hauen 2. artikuluaren arabera laguntza horretara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea sei hilekoa izango da, eskaeraren erregistroko datatik hasita, dokumentazio administratiboa zuzentzeko aldiak zenbatu gabe. Laguntza ematearen ebazpena ezarritako epean ez emateak ez dakar laguntza ematea.

Eskaeraren ebazpena ematerakoan, Donostia Sustapenak aurkeztutako nahitaezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskaerarekin batera oinari hauetan hura ebazteko eskatu ez diren gainerako dokumentuak ez dira zertan berrikusi laguntzaren ebazpena emateko.

Laguntza Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen arrazoitu baten bitartez emango eta ukatuko da, oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza oro betetzen den aintzat hartu ondoren.

Ebazpenak eskatzaileen eskaera-eranskinean “jakinarazpenetarako helbide elektroniko” moduan emandako helbidera bidalitako mezu elektronikoz jakinaraziko dira, eta web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, entitate edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan, eta onuradunen zerrenda argitaratu egingo da.

Aldeko ebazpenetan, oinarrizko laguntzaren eta lanaldiaren ehunekoaren arabera eskatutako gehigarrien baturaren zenbatekoa adieraziko da, hau da, eskatzaileak jasoko duena. Kontratazioaren ondorengo 12 hilabeteetan lanaldia handitzen bada ere ez da emandako ebazpeneko zenbatekoa aldatuko.

Deialdi honen inguruko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eskaeran adierazitako helbide elektronikoan, eta, gainera, webgunean egongo dira eskuragai, entitate edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientean.

Emandako ebazpenarekin ados ez daudenek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, gehienez ere ebazpen hori eman eta hilabeteko epean, eta Donostia Sustapenak xedatutakoari jarraituko zaio. Bi alderdiak, hala badagokio, Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mendean egongo dira.

Halaber, Donostia Sustapenak eskaeren erreserbako zerrenda bat egin ahalko du aurrekontu-faltagatik dirulaguntzarik gabe gelditu direnekin, aurrerago aurrekontua edukiz gero baietsi ahal izateko.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Gastu diruz lagungarri moduan onartuko dira, oro har, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerakoak izanik oinarri arautzaile hauek ezarritako epean egin direnak.

Gastu diruz lagungarriei dagokienez, aplikagarria izango da, berariaz, 20/2023 Legearen, abenduaren 21ekoaren, Dirulaguntzen Araubideari buruzkoaren, 30. artikulua.

Dirulaguntzaren % 100 ordainketa bakarrean emango da, kontratazioaren lehen 12 hilabeteen ondoren bi hilabeteko epean aurkeztu beharreko azken justifikazioa egin eta gero. Justifikazioa aurkezteko azken eguna, edozein kasutan ere, **2027ko abenduaren 31** izango da.

Ez bada garaiz eta behar bezala aurkezten, edo oinarrietan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dela egiaztatzen bada, onuradunak 13. klausularen arabera jasotako guztia itzuli beharko du.

Laguntza justifikatzeko honako **azken dokumentazio hau aurkeztu** behar da:

1. **Justifikazio-eranskina.**

2. «**Afiliatu baten lan-bizitzaren txostena»**, kontratatutako pertsonarena, laguntzarako behar den aldirako eta behar den lanaldiarekin enpresan egon dela frogatzeko.

3. **«Kotizaziorako datuen txostena** – Besteren konturako langileak» (KDT); kontratatutako pertsonarena, justifikatu beharreko aldia hartzen duena.

4. Prestakuntzagatiko gehigarria eskatuz gero, prestakuntzaren egiaztagiria edo enpresak eta langileak sinatutako zinpeko adierazpena, prestakuntzaren xedea, datak, iraupena eta bete beharreko lanposturako egokitasuna jasotzen dituena.

5. Harrera-planaren araberako hasierako aldiko egokitzapenaren jarraipenaren txostena.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik.
Justifikatzeko ezarritako epea igaro eta gero, dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, Donostia Sustapenak onuradunari dokumentazio hori gehienez ere jakinarazpena jaso eta 15 egun naturaleko epean aurkez dezan eskatuko dio. Epe hori igarotakoan, dagokion dokumentazioa aurkezten ez bada, laguntza ezetsi egin dela ulertuko da, eta, beraz, kobratzeko eskubidea galdu dela edo, hala badagokio, jasotako zatia itzuli behar dela.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzen onuradunek beren gain hartuko dituzte 20/2023 Legearen, abenduaren 21ekoaren, Dirulaguntzen Araubideari buruzkoaren, 14. artikuluan jasotako betebehar orokorrak. Ondorio horietarako, legea aplikagarria da berariaz, eta haren honako betebehar hauek ere bai (zerrendakoak adibideak dira, gehiago ere egon daitezke):

a) Laguntza diruz lagundutako jardueretara bideratzea.
b) Diruz lagundu beharreko gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta epean.
c) Jasotako laguntzak aplikatu izana justifikatzeko dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskaritza jarduketetarako, aplikagarria den araudian ezarritako epean.
d) Proiektuaren jardueretako gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
e) Kontabilitate-liburuak ondo eramatea, horretara behartuta egonez gero.
f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.
g) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein egoera subjektibo edo objektibo aldatu bada, Donostia Sustapenari jakinaraztea.
h) Emandako laguntzen inguruko bere funtzioak erabiliz Donostia Sustapenak eskatutako informazio oro ematea.
i) Donostia Sustapenari jakinaraztea helburu berarekin beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat jaso bada.
j) Donostia Sustapenak emandako laguntzaren inguruan antola ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpenak, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
k) Donostia Sustapenari jakinaraztea laguntzaren xede den proiektuaren baldintzetan aldaketak dakartzan edozein inguruabar. Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzea, egin ditzakeen kontrol finantzarioko jarduketetan eta egiaztapenetan, eta eskatutako informazio eta dokumentazio guztia haren esku jartzea.
l) Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezko lizentzia eta baimen guztiak izatea.

m) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan jasotako baldintzak betetzea.

n) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio-euskarrietan (webgunean, sare sozialetan, mezu elektronikoetan, megafonian eta abarrean), sustapenerako eta zabalkunderako materialen edizioan, antolatutako jardunaldien eta ekitaldien hizkuntzetan eta abarretan.

o) Entitate eskatzaileek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (1.000 karaktere hilean, gehienez ere, eta 9.000 karaktereko itzulpenak), baldin eta zerbitzuaren betekizunak eta ezaugarriak betetzen badira (http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu).

p) Entitate eskatzaileek berariaz bultzatu beharko dute, beren jardunaren bidez, onuradunek eta herritarrek Lanbidek- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egiten duen ekarpena ezagut dezaten.

13. ARTIKULUA. ITZULKETA

Onuradunak ekarpena itzuli beharko du, diruaren legezko interesa gehituta –jasotako zenbatekoak ordaindu diren unetik zenbatzen hasita–, honako kasu hauetan:

- Oinarri hauetan jasotako betebeharren ez betetze larri eta errepikatuetan. Ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako edozein datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentu faltsua izatea edo faltsutzea; eta/edo oinarri hauen ondorioz jasotako laguntza osoa edo haren zati bat aurreikusitakoez besteko xederen baterako erabiltzea.
- Ekarpenaren xedea oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra eta haietan jasotako beste edozein betekizun eta betebehar garaiz ez betetzea, eta behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jarduerari egin dakizkiokeen egiaztapen- eta ikuskaritza-jarduketei erresistentzia egitea, aitzakiak jartzea, horiek oztopatzea edo horiei uko egitea, baita kontabilitateko, erregistroetako edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak ez betetzea ere, horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenak nola erabili diren, finantzatutako jarduerak egiazkoak eta erregularrak izan diren edo helburu berarekin dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jaso diren estatuko edo Europar Batasuneko edozein administraziotatik edo entitate publiko edo pribatutatik, edo nazioarteko organismoetatik.
- Jarduera diru gehiegiz finantzatu bada, gastatu gabeko zenbatekoa edo gehiegizkoa itzuli beharko da.
- Objektibotzat edo enplegatzaileari egotzi ezinezkotzat jotzen ez diren kausengatik kontratua hutsaltzea.

Aurrekoa esanik, laguntza hauen onuradun izateko betekizunak une oro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak horiek itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako moduan. Halaber, ez-betetze larrienetarako, adibidez, datuak faltsutuz gero edo jasotako laguntza osoa edo haren zati bat desbideratuz gero, Donostia Sustapenak ahalmena izango du emandako laguntza ezeztatzeko eta, hala badagokio, dagoeneko jasotako zenbatekoak itzularazteko, eta, gainera, jasotako zenbatekoaren boskoitza ordain diezaiotela eskatzeko.

Ekarpena itzultzea bidezkoa izango da Donostia Sustapenak jarraian deskribatutako moduan egiaztatzen duenean eta onuradunak jakinarazten dionean oinarri hauetan ezarritako kausaren bat gertatu dela.

Dirua laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean itzuli beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari artikulu honetan jasotako itzulketarako kausaren bat dagoela jakinarazteko burofaxa bidaltzen dion egunetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gainera, Donostia Sustapenak eskubidea du berak eskainitako beste edozein laguntza edo onuratan BI (2) URTEZ parte hartzea eragozteko oinarri hauetan ezarritako betebeharrak zabarkeriagatik bete ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoei edo fede onaren oinarrizko arauak urratu dituztenei.

14. ARTIKULUA. KOFINANTZAKETA

Oinarri hauek Donostiako Enplegu eta Toki Garapeneko 2026-2030 Planaren barruan egin dira eta hark diruz lagundutakoak dira, eta, gainera, Lanbidek- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lankidetza Funtsak batera finantzatu dituzte.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuen babeserako indarreko araudiak ezarritakoari jarraituz, jakinarazten da emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, eta hura izango dela tratamenduaren arduraduna. Informazioa Donostiako Sustapena SA sozietateak kudeatuko du, tratamenduaren eragile izango baita.
Tratamenduaren xedea da laguntza-eskaera izapidetzea eta kudeatzea.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria 2016/679 Erregelamenduaren (EB) (DBEO) 6.1.e) artikulua da; izan ere, ezinbestekoa da interes publikoaren aldeko misio bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoen jardunerako, 7/1985 Legeari, apirilaren 2koari, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenari; 2/2016 Legeari, apirilaren

7koari, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoari; eta **20/2023 Legeari, abenduaren 21ekoari, Dirulaguntzen Araubideari buruzkoari**, jarraituz.

Oinarri hauetan edo dagozkien eskaera-inprimakietan hala adierazten denean, nahitaezkoa izango da eskatutako datu pertsonalei buruzko informazioa ematea, eta, ematen ez bada, edo datu okerrak ematen badira, eskaera ezingo da kudeatu.

Oinarri hauetan araututako laguntzetan onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko edo estatuaz gaindiko entitateei laga ahalko zaizkie, hala badagokio, laguntzak kofinantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzen badira haiek kudeatzen, beharrezkoa izanez gero, eta laguntzak ematea kudeatzeko soilik.

Halaber, jakinarazten da laguntzak emanez gero onuradunaren identifikazio datuak eta emandako laguntzaren zenbatekoa komunikatu edo laga egingo direla, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko baitira.

Ez da aurreikusi hirugarrenei datuak komunikatuko zaizkienik, legez behartuta egon ezean, ezta nazioarteko datu transferentziak egiterik ere.

Tratamendu honen xede direnen datu pertsonalak gorde egingo dituzte alderdiek, jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizun posibleak zehazteko beharrezko aldi guztian. Aplikagarria izango da artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa.

Ukitutako pertsonek datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko eta datuak babesteko araudiak jasotako beste eskubideak erabili ahal izango dituzte, bidezkoa bada, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan, helbide honetan: Ijentea kalea 1, 20003, Donostia.

Beren eskubideak erabiltzean ez bazaie arreta behar bezala eman, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008, Gasteiz. Nolanahi ere, aurretik eta aukeran, harremanetan jarri ahal izango da Donostiako Datuen Babeserako ordezkariarekin: dbo@donostia.eus.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onartzea.
Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta indarrean sartuko dira argitaratu eta hurrengo egunean.
Eskaera onartzeak berekin dakar interesdunek oinarriak oso-osorik onartzea.

Erantzukizun-salbuespena.

Onuraduna da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko jarduketek edo ondorengoek sortutako kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du horien gaineko inolako erantzukizunik izango.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauetan araututako laguntzek oinarriotan xedatutakoari jarraituko diote, baita 20/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Dirulaguntzen Araudiari buruzkoak; 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak; 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoak; autonomia-erkidegoko eta udalerriko gainerako araudi aplikagarriak eta estatu-laguntzei eta de minimis laguntzei buruzko Europako araudiak ezarritakoari ere, eta, bereziki, Europako Batzordearen 2023/2831 Erregelamenduak (EB), 2023ko abenduaren 13koak, xedatutakoari.

Laguntza hauek Lanbidek- Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak batera finantzatutako Donostiako Enplegu eta Toki Garapeneko 2026-2030 Planaren barruan eskaini dira.

ANE OYARBIDE OCHOA - 72502511W
2026.11.03 09:53:06 +01'00'

Donostian, sinaduraren datan

Ane Oyarbide Ochoa

Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzi ordezkaria